

Euskal AEko Administrazioak, 2022ko urtarrilaren 1ean, 4.110 pertsona gehiago enplegatzen ditu, aurreko urtean baino % 2,9 gehiago

Emakumeek jarraitzen dute pisu handiagoa izaten Euskal AEko administrazioetan; guztizkoaren % 64 dira

Euskal AEko Administrazio Publikoek (Estatuko Administrazioaren eta Gizarte Segurantzako Sistemaren mendeko langileak kontuan hartu gabe) 146.636 langile ditu 2022ko urtarrilaren 1ean, Eustatek landutako datuen arabera. Euskal AEko Administrazioak landunen kopuruak gora egiten jarraitzen du, eta, azken horretan, 4.110 pertsona gehiago zenbatu dira, hau da, urte arteko % 2,9ko hazkundea izan da.

Feminizazioa Euskal AEko Administrazioan

Aurtengo urte-hasieran, Euskal AEko Administrazioan 93.858 emakume enplegatu izan dira; alegia, enplegatuen % 64 emakumeak dira (ehuneko 2 puntu gehiago 2021eko urtarrilaren 1ean baino). % 36, berriz, gizonak, 52.778. 2017. urteaz geroztik, emakumeek ehuneko 14,2 puntu irabazi dituzte Administrazioan; zehazki, 2022an, emakumeen kopurua % 3,2 handitu da, eta gizonena, % 2,2.

Euskal administrazio publikoetako enplegatuak, sexuaren arabera. 2017-2022

	2017		2020		2021		2022	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Guztira	132.442	100,0	139.885	100,0	142.526	100,0	146.636	100,0
Emakumeak	50.249	37,9	51.670	36,9	51.617	36,2	52.778	36,0
Gizonak	82.193	62,1	88.215	63,1	90.909	63,8	93.858	64,0

Data 2022ko Abenduaren 21a

Iturria: Eustat. Herri-administrazioen gidazerrrenda

Administrazioetako ezaugarri hori aztertuta, Eusko Jaurlaritzak eta haren mendeko erakundeek enplegatutako emakume guztien % 71,6 kontzentratzen dutela ikusten da. Feminizazio-tasa administrazio bakoitzean % 50etik gorakoa da, eta, aurreko urtean ere, Eusko Jaurlaritza nabarmentzen da, % 69,8ko tasarekin, eta, ondoren, Foru Aldundiak, % 60rekin. Hamar puntutara daude Toki Erakundeak; haietan, gizon eta emakumeen pisua antzekoa da: gizonen % 49,9 eta emakumeen % 50,1.

Egitura Euskal AEko Administrazioetan, esparru arautzailearen arabera

Funtzionarioak, 2022ko urtarrilaren 1ean, Euskal AEko Administrazio Publikoetako enplegatu guztien % 61,9 dira, aurreko urtean baino bi hamarren gehiago; % 3,2ko hazkuntza izan dute. % 37,1 **langile lan-kontratadunak** dira, bi kasuetan Osakidetzako estatutupeko langileak barne, eta % 1 **goi-kargudunei** dagokie.

Euskal AEko administrazio publikoetan langile enplegatuak, esparru erregulatzailearen arabera. 2022/01/01


	Guztira	Eusko Jaurlaritza eta mendeko erakundeak	Foru aldundiak eta mendeko erakundeak	Toki-erakundeak eta mendeko erakundeak	Gainerako erakunde publikoak
Guztira	146.636	96.253	12.225	27.054	11.104
Goi karguak	1.403	335	215	681	172
Funtzionarioak guztira	90.805	65.064	7.373	15.260	3.108
Funtzionario finkoak	63.261	47.854	4.509	8.647	2.251
Bitarteko funtzionarioak	27.544	17.210	2.864	6.613	857
Lan kontratadunak guztira	54.428	30.854	4.637	11.113	7.824
Lan kontratadun finkoak	17.902	6.956	2.356	5.355	3.235
Aldi baterako lan kontratadunak	36.526	23.898	2.281	5.758	4.589

Data 2022ko Abenduaren 21a

Iturria: Eustat. Herri-administrazioen gidazerrenda

Enpleguko **behin-behinekotasunari** dagokionez, langileen % 55,3 finkoak dira, eta bertan sartzen dira funtzionarioak, lan-kontratadunak eta estatutupeko finkoak. Bestalde, bitarteko funtzionarioek % 18,8 osatzen dute, aurreko urtearen aldean bederatzi hamarren gehiago, % 7,7ko igoeraren ondoren. Bitarteko funtzionarioen bilakaera hori Euskal AEko Administrazio guztietan gertatzen da, baina nabarmenagoa da Eusko Jaurlaritzan (% 9,2) eta, ondoren, aldundietan (% 6,7). Bestalde, aldi baterako lan-kontratadun langileen pisuak pixka bat gora egin du (% 24,9), % 4,2 hazi ondoren, aurreko urteko kopuru osoaren aldean. Nabarmenezkoa da langile-kategoria horrek edukitako gorakada Eusko Jaurlaritzan eta haren mendeko erakundeetan, % 5,7ko hazkuntzarekin, eta aldundietako beherakada (–% 3,7). Oro har, **behin-behineko** langileen kopurua –bitarteko funtzionarioen eta aldi baterako lan-kontratadun langileen batura– % 5,7 hazi da aurreko urtearekin alderatuta, eta % 43,7 dira, 2022ko urtarilaren 1ean.

2022ko urtarilaren 1ean Euskal AEko administrazio publikoetan langileak, esparru erregulatzailea



Iturria: Eustat. Herri-administrazioen gidazerrenda

Langileen banaketa, mendekotasun-administrazio motaren arabera

Euskal Administrazioan enplegatutako 146.636 pertsonetatik, **2022ko urtarilaren 1ean**, % 65,6 Autonomia Erkidegoko Administrazioak dira, % 18,4 Toki-Erakundeetakoak, % 8,3 Foru Aldundietakoak eta gainerako % 7,6a Unibertsitatekoak, Fundazioetakoak eta Beste Erakunde Publiko Batzuetakoak. Azken urtean, igoerarik handiena izan da (% 3,6) Eusko Jaurlaritzaren Administrazio Orokorrean eta haren

mendeko erakundeetan, eta, ondoren, Foru Aldundietan, % 2,3ko urte arteko tasarekin, eta EAEko gainerako erakundeak, % 2,2rekin; Toki Erakundeek ez dute aldaketarik izan langileei dagokienez, eta % 0,8ko aldakuntza izan dute, 2021arekin alderatuta.

Urteko batez besteko langileen bilakaera aztertuz gero, 2016. urtearekin alderatuta, Euskal AEko Administrazioetan lan egiten duten pertsonen kopurua 13.812 pertsonatan handitu da, eta batez besteko tasa metagarria % 1,4koa izan da. Balio absolutuetan, **Eusko Jaurlaritzak** eta haren mendeko diren erakunde guztiek 9.326 langile gehiago dituzte, % 1,5eko batez besteko aldakuntza metagarriarekin **Gainerako Erakunde Publikoak** izeneko multzoa, besteak beste, Euskal Herriko Unibertsitatea, Fundazioak, Elkarre Publikoak eta abar biltzen dituen, bigarren postuan dago, 1.887 pertsona gehiagorekin, % 2,5eko batez besteko aldakuntza-tasa metagarriarekin. **Foru Aldundiak** dira hirugarren, 1.424 pertsona gehiagorekin eta batez besteko % 1,6ko tasa metagarriarekin. Azkenik, **Toki Erakundeak** daude, % 0,7rekin eta 1.175 pertsona gehiagorekin.

Euskal herri administrazioetan batez besteko pertsonal enplegatua, entitate-motaren arabera. 2016-2021

	2016		2019		2020		2021		2021 / 2020	BBMT 2021 / 2016 (%)
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%		
Euskal administrazioak, guztira	130.256	100,0	137.373	100,0	140.411	100,0	144.068	100,0	2,6	1,4
Eusko Jaurlaritza	84.751	65,1	88.457	64,4	91.230	65,0	94.077	65,3	3,1	1,5
Foru-aldundiak	10.895	8,4	11.836	8,6	12.080	8,6	12.319	8,6	2,0	1,6
Tokiko izakundeak	25.423	19,5	26.504	19,3	26.325	18,7	26.598	18,5	1,0	0,7
Gainerako erakunde publikoak	9.187	7,1	10.576	7,7	10.778	7,7	11.074	7,7	2,7	2,5

BBMT: batez besteko bariazio metatuaren tasa

Data 2022ko Abenduaren 21a

Iturria: Eustat. Herri-administrazioen gidazerrenda

Aurreko urtearekin alderatuta, 2021ean administrazio publikoetan lan egin zuten langileen kopurua % 2,6 hazi zen; tasa hori aztertutako aldiko batezbesteko metagarria baino handiagoa da, eta nabarmenezkoa da Eusko Jaurlaritzaren mendeko langileen % 3,1eko hazkundera.

Langileen banaketa, mendekotasun-lurraldearen arabera

Lurraldeka, ez da ia aldaketarik antzematen lurralde-banaketetan; Bizkaiak enplegatutako pertsona guztien % 48,9 hartzen ditu, Gipuzkoak % 29,8 eta, azkenik, Arabak gainerako % 21,3a. 2021. urtekoaren aldean aldaketa txikiak izan dira.

Euskal AEko administrazioetan pertsonal enplegatuen lurralde-banaketa. 2022/01/01

	Guztira	Araba/Álava	Bizkaia	Gipuzkoa
Euskal administrazioak	146.636	31.177	71.771	43.688
Eusko Jaurlaritza	96.253	20.385	47.686	28.182
Foru-aldundiak	12.225	3.822	5.486	2.917
Tokiko izakundeak	27.054	5.025	12.867	9.162
Gainerako erakunde publikoak	11.104	1.945	5.732	3.427

Data 2022ko Abenduaren 21a

Iturria: Eustat. Herri-administrazioen gidazerrenda

Ohar metodologikoa:

Direktorioaren esparruan Administrazio Publikoak dira: Euskal AEko Administrazio Orokorra, Foru Aldundiak eta Udalak, eta baita ere Erakunde Autonomiadun Administratiboak, Erakunde Publikoak, Sozietate Publikoak, Fundazioak eta haien menpeko Irabazi Asmorik Gabeko Erakundeak. Barne daude % 50eko edo gehiagoko parte-hartze publikoa duten erakunde guztiak, hala administrazio bakar batenak nola zenbaitenak.

Argibide gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz
Prentsa Zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62